

laister berri



001

BEASAIN THUKUN

002

25. URTEURRENA.
BEASAINCO ERRETIRATU
ETA PENTSIDUMEN
ELKARTEA

003

MILURTEKO BUSA

004

UDALEKUAK

005

TRIKUHARRIAK

006

UDAL EUSKALTECIA

007

JARIAK

010

EKINTZAK

laister berri

BEASAIN TXUKUN

ZAKUR-JABEENTZAKO

INFORMAZIO ETA SENTIBERATZE- KANPAINA.



Beasaingo Udalak badaramatza hainbat urte beasaindarrak gizabidez jokatzearen garrantziaz kontzientziatzeko kanpainak bultzatzen, animalia edukitzeaz edota lorategiak zaintzeaz argibideak emanez.

Aurtengoan, hilaren 4tik 29ra, bi pertsona kontratatuko ditu Udalak. Beasaingo hainbat gunetan ibiliko dira langile hauek, egunero 6 orduko lanaldia eginez, ahelik eta animalia eta jabe gehien topatzeko helburuarekin. Honela, tokian-tokiko informazio eta sentiberatze-kanpaina eraginkor- ragoa burutuz.

Kanpaina honek 4 helburu nagusi izango ditu: animalia identifikatuta egotea, lotuta eramatea, debekautako tokietan ez sartzea eta zakur-jabeak bere animaliak egindako gorotzak jasotzea.

"Beasain txukun" lelopean, Beasaingo Udalak urteroko gomendio gogoratzen digu: "beasaindar guztiok gizabidez jokatu behar dugula".

laister berri

Diseinua:
AH Diseño
Maketazioa:
AH Diseño
Erredakzioa:
AH Diseño
Publizitatea:
AH Diseño
Inprimaketa:
Gráficas
San Martín C.B.
Lege Gordailua:
SS-654/96
Erredakzioa
helbidea:
Martina
Maiz 3/2.
bulegoa
T 943 882 257
F 943 027 639
E ab@dicab.com

Beasaingo Kultura
Batzordeak
aldizkari honen
6.500 ale banatzen
ditu hilabetero
Beasaingo
postontzietan.

Eragilea:
kultura saila



Beasaingo udala

laister berri

25. URTEURRENA. BEASAINGO ERRETIRATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA

XXV. Urteurrena

Beasaingo Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartea

Aurten hogeita bost urte betetzen ditu Beasaingo Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartek. 1982ko ekainaren 26ean sortu baitzen elkarte hori. Ekintza ugari izan dira, urte hauetan guztietan, Elkartek horiek udalerriko adinekoei eskaini dizkienak. Hori dela eta, **Mari Carmen Bustinduy Hernando lehendakaria elkarriketatu dugu Elkartearen inguruko gorabeherak sakonago ezagutu asmoz.**



Nola laburbilduko zenituzke 25 urteak?

Erretiratuen etxeak aro ezberdinak izan ditu. Lehendakari eta zuzendaritza ezberdinei loturiko arak ziur aski. Oraindik gogoan ditut hildako Cesareo Ugarte eta Pablo Aguado Jaunak; eta nire aurretik lehendakari izandako Manuel Murguiondo Jauna ere aipatu nahi nuke. Zuzendaritza guztiek izan baitute neurri berean ekintza ugari antolatzeke kezka eta ardura.

Nolatan egin zinen lehendakari?

Zorioneko kointzidentzia izan zen. Gazte alargundu nintzen eta egoitzaren bazkide gazte egin nintzen. Orduan, orain 14 urte, erretiratuen etxeak lau urtean behin edo aldatzen zuen lehendakaria. Kargu hori gizonekoentzat bakarrik ote zen galdetzea ote zitzaidan eta... postua eman zidaten.

Bazkideek nola ikusten ote dute Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkartea?

Elkartek egun 1.600 bazkide baino gehiago ditu, beraz gustura daudela esango nuke nik. Bazkideek ekintzetan ageri duten partaidetzari begiratzen badiogu berriz, oso gustura daudela esango nuke. Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkartea antolatzen dituen taileretan, hitzaldietan, irteeretan, oporretan, dantza saioetan eta abesbatzan partaidetza altua da, nabarmen.

Zeintzuk dira elkartearen zuzendaritza lanaren alde onak eta txarrak?

Pertsonalki, antolatzen ditugun ekintza guztien artean gustukoena dudana urtero otsailaren 5ean antolatzen dugun bazkide adinduenen omenaldia da. Bestetik, badira hainbat urte oztopo handi bati aurre egin beharrenean gabiltzala: antolakuntza lanetan laguntza gehiago behar dugu. Estatutuen arabera, zuzendaritza hamalaka pertsonen osatu beharko lukete, baina 6 pertsona baino ez gaude guztira.



MILURTEKO BUSA / ERAKUSKETA IBILTARIA

Medicus Mundiren "Milurteko Busa" erakusketa ibiltaria Beasaina iritsiko da ekainaren 22tik 25era bitartean. Beasaingo Udalaren laguntzarekin Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundeak martxan jarritako erakusketa honen bitartez, beasaindarrak milurteko helburuen eta osasunerako eskubide unibertsalaren gainean sentsibilizatu nahi dira.

AZKEN GELTOKIA: OSASUN UNIBERTSALA

"Azken geltokia: osasun unibertsala" lelopean, pedagogian eta komunikazio sozialean aditua den talde batek zuzeneko eta satelite bidezko harrera emango du. Koreako gudako autobusak, bakerako eta garapenerako teknologiarekin hornituak, eta ikusentzunezko ibilbide didaktiko interaktiboa duten karpak Milurteko Garapen Helburuen (MGH) erronkaren dimentsioa ulertzen eta guztion artean 2015erako errealitate izan daitezen kontzientziatzen lagunduko dute.

"Milurteko Busa" erakusketak aukera emango dio jendeari hiru gune ezberdinetan zehar ibiltzeko. Lehenik eta behin, autobus geltoki baten itxarongela islatzen duen karpa batera sartuko da bisitaria eta bertan Milurteko Helburuak modu aktiboan ezagutuko ditu.

Ondoren, autobusera igoko da eta leku horretan bideokonferentziaren bitartez, Bolivia, Peru eta Kamerungo jendearekin hitz egiteko aukera izango du, galderak egiteko eta abar. Azkenik, bisitaria bigarren karpa batera igaroko da eta bertan Medicus Mundi eta hainbat mugimenduk zortzigarren helburuaren esparruan martxan jarri dituzten ekimenekin bat egiteko proposatuko dio bisitariari. Helburua honakoa da: pobreziaaren aurka munduko elkarte bat sustatzea.

"2000 urteko irailean, 189 estatu eta gobernu buruek Milurteko Garapen Helburuak definitu zituzten munduko pobreziaaren aurka borrokatzeko helburuarekin".



Buka dezagun gosea eta pobrezia ekin



Hezkuntza pertsona guztientzat



Eskubideak eta autonomia emakumeentzat



Emakumeak eta haurrak osasuntsu eta onik



Stop malaria, HIES eta tuberkulosiari



Ingurugiro jasangarria



Garapenerako Munduko Elkarrekin

laister berri

COLONIAS

Quando se va asomando el verano, el **Ayuntamiento de Beasain** presenta una **completa oferta de actividades de ocio, música y deporte a las diferentes familias del municipio**. Escoger la mejor opción dependerá de las necesidades y aficiones y, sobre todo, de la edad del niño. De esta manera el Ayuntamiento ofrece una serie de actividades de verano para que el niño aprenda a convivir, a compartir experiencias y a ser independiente.



	TIEMPO LIBRE	MÚSICA	DEPORTE
EDAD	9-16 años	4-12 años	4-16 años
CUANDO	Del 25 de junio al 13 de julio. 10:00 - 13:00	Del 25 de junio al 6 de julio. 09:30 - 13:30	ekainaren 25etik uztailaren 6ra. Uztailaren 9tik 20ra eta 16tik 27ra. 10:00 - 13:00
DONDE	Loinazko San Martin plazan.	En Loinatz musika eskola.	En el Polideportivo Antzizar.
ACTIVIDADES	Juegos, euskara, cultura, naturaleza.	Canto y ensayo coral, danza y coreografía, Gimnasia y juegos. Concierto didáctico de música.	Natación, Psicomotricidad, juegos, tenis, tiro al arco, escalada, montaña.
MATRÍCULA	Ikastetxe, gazteguner, ludoteketan. Del 28 de mayo al 8 de junio.	En Loinatz musika eskola. Del 23 de mayo al 15 de junio.	En el Polideportivo Antzizar. A partir del 4 de junio.
PRECIO	70€	110€	50€ socios 88€ no socios.
INFORM.	943 886546	943 028 105	943 887 900

Dolmenei buruzko erakusketa Igartza Jauregian



Goierriko oso onare arkeologiko garrantzitsua dauka, duela 3.000 eta 5.000 urte artean harritzarrekin egindako dolmenak edo hilobiak nabarmentzen baitira. Beasainen ondorengo dolmen haiek nabarmentzen dira; Trikuhaizti I eta II, Larrarte, eta bertatik hurbil daudenak, hots, Mandubizelai eta Trikumutegi, horiek guztiak, Josean Mujika Alustiza arkeologo beasaindarrek, ikertuak. Hauetan guztietan hilobiratu zituztenen hezur-gorpuzkinak eta lehenengo beasaindar haiek erabilitako lanabes eta zeramika puskak aurkitu dira aipatutako dolmenetan. Inguruko udalerrietan ere dolmen ugari daude, Azaunen eta Idiazabalen, kasu.

Ekainaren 11tik 15era bitartean "Megalitismoari buruzko Nazioarteko Biltzarra" egingo da Goierriko Campusean, eta arlo horretako aditurik onenek hartuko dute parte. Beasaingo Udalak bat egingo du gertaerarekin, Igartza Jauregian dolmenei buruzko erakusketa bat antolatuz. "Trikuharriak" erakusketak Igartza Jauregian irekiko ditu ateak ekainaren 11n, astelehenean, 19:30ean. Eta asteburuero egongo da zabalik irailaren 30era arte, goizean, 11:00etatik 13:00ak arte eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00ak arte. Erakusketa honetarako edukien prestaketan Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaren Departamentuak eta Aranzadi Zientzi Elkartek parte hartu dute.

laister berri

UDAL EUSKALTEGIA

Aprobetza ezazu uda eta ikasi euskara!

UDAL
EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net



BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA. UDAKO IKASTAROAK.

Beasaingo Udal Euskaltegiak, uda aprobetxatuz, euskara ikasteko gonbita egiten digu oraingoan. Udako ikastaroetan izena emateko epea ekainaren 4tik 22ra bitartean izango da bertara gerturatuz, telefonoz deituz edo posta elektronikoz bidez.

Inoiz EGA egiten saiatu eta lortu ez baduzu, edo besterik gabe, irailean EGA ateratzeko ahalegina egin nahi baduzu, azterketa prestatzeko bi aukera eskaintzen ditu Udal Euskaltegiak udako ikastaroen programan. Batetik, uztaillean, 100 orduko ikastaroa; eta bestetik, irailean, 40 orduko ikastaroa.

Bestelako mailen inguruko ikastaroetan edo alfabetatze ikastaroetan ekin nahi badiozu, uztaillean, goizeko ordutegian, eta irailean, arratsaldeko ordutegian, aukera izango duzu.

MAILA GUZTIAK, ALFABETATZE ETA EGA.

Dataki: ekainaren 27tik uztailaren 24ra arte
Ordutegia: 8:00 – 13:00.
Iraupena: 100 orduko ikastaroa.

EGA

Dataki: irailaren 3tik 28ra bitartean
Ordutegia: 19:00-21:00.
Iraupena: 40 orduko ikastaroa

laister berri

JAIAK

2007ko EZKIAGAKO SAN PEDRO JAIAK

Ekainak 28, osteguna

11:00etatik 13:30etara Puzgarriak Oriako pasealekuan.
15:30etatik 18:30etara Puzgarriak Oriako pasealekuan.
19:00etan Buruhandiak eta txistulariak.
20:00etan Sardina eta txistorrajana.



2007ko ARRIARANGO SAN PEDRO JAIAK

Ekainak 29, ostirala

11:00etan Suziriak eta buruhandiak.
12:00etan Meza Nagusia.
13:00etan Omenaldia herriko agure zaharrenari dantzari eta guzti.
14:00etan Herri-bazkaria. Bertsolariak: Milan Telleria eta Angel Larrañaga. Ondoren dantzaldia KUPELA taldearekin.
17:00etan Mus eta Puntu-txapelketa (izen-ematea 16:00etan itxiko da).
21:00etan Herri-afaria, bertsolari eta trikitilariekin.

Ekainak 30, larunbata

16:00etan Haur-jolasak.
17:00etan Pilota-partiduak.
18:30ean Herri-kirolak.
Aizkolariak:
Iñaki Azurmendi / Angel Arrospide.
Floren Nazabal / Juanjo Erdozia.
21:00etan Herri-afaria, ondoren Xapre trikitilaria goizalderarte.

Uztailak 1, igandea

10:30etan Meza Nagusia.
11:00etan Loinazko abesbatzaren kontzertua.
18:30ean Herri-kirolak.
12:00etan Hamaiketakoa herritarrentzat.